

# EUSKAL-FESTAK

ETA

## NEKAZARITZA ETA GANADUEN BILLALDIYA AZPEITIYA-N

Gipuzkoako Diputazio chit goituak bere kontura egiñak



**1901**

Gipuzkoako Diputazio chit goituaren erabakiyari dagokiyola, alegiñ guztiyan Nekazarilan eta Ganaduen onari laguntzeko, izango dira Azpeitiya-n, datorren Agorrean, ondoren agertzen diran billaldi eta eliz-egintzak:

### **Agorraren 28-an**

*Goizeko zazpiyetatik amabiyetara.*— Billaldiyan sartu nai duten ganadu, egazti eta lur frutuen artutzea.

*Arratsaldeko ordubiyetatik bostetara.*— Billaldirako arturik izan diran ganadu, egazti eta lur-frutuen banakatze eta esamiña Juezak-gatik.

*Illunabarrean.*— Soreasu-ko Sebastián santuaren Eleiz-nagusian Salbea musika-talde osoarekiñ.

### **Agorraren 29-an**

*Goizeko zortziyetatik amaiketara.*— Billaldiyan sarituak izan diran ganadu, egazti eta lur-frutuan agertzea.

*Bederatzi t'erdietan.*— Fuegoetako denboran egiten zan prozesioa

eta Meza nagusia musika oso ederrarekiñ, sermoya eukaraz duela Jesus-en Lagundiko Aita Oyarzun gurgarriak, gipuzkoar izkeran.

*Arratsaldeko labetan.*— Agertuko dira sariyak irabazitako ganadu, egazti eta lur-frutu guztiyak, jabeak zein dituzten deyez azaldu eta berai emanaz ondoren ikusten diran sari oek:

1.<sup>ko</sup> Bat 300 pezetakua, bestea 250, bestea 200, bestea 100, bestea 90, bi 80-ko eta bestea 75-kua, amar illabetetik bi urtera bitarteko zezen edo zekorrik onenai, sari oetako bat eman bear zayolarik bertako kasta edo arraza garbikua dan bati.

2.<sup>garren</sup> Bat 250 pezetakua, bestea 200, bestea 150, bestea 125, bestea 90, bi 80-ko ete bestea 75-kua urte batetik bostera bitarteko bei edo bigarik onenai, sari oetako bat eman bear zayolarik bertako kasta edo arraza garbikua dan bati.

3.<sup>garren</sup> Bat 150 pezetakua, bestea 100, bestea 80, eta bestea 50-kua, sei illabetetik urte batera bitarteko apoterik onenai.

4.<sup>garren</sup> Bat 100 pezetakua, bestea 80, bestea 70, bestea 50, eta bestea 25-kua, sei illabetetik urte batera bitarteko zerriemerik onenai.

5.<sup>garren</sup> Bat 150 pezetakua, bestea 100, bestea 75, eta bestea 50-kua, urte batetik bostera bitarteko zaldi edo zaldiñorik onenai, sari oetako bi eman bear izanik bertako kasta edo arraza garbikoak diranai.

6.<sup>garren</sup> Bat 100 pezetakua, bestea 85, bestea 75, eta besta 65-kua, urte batetik bostera bitarteko bior edo bior gazterik onenai, sari oetako bi eman bear izanik bertako kasta edo arraza garbikorik diranai.

7.<sup>garren</sup> Bat 80 pezetakua, bestea 70, eta bestea 60-kua, urte batetik bostera bitarteko aririk onenai.

8.<sup>garren</sup> Bat 70 pezetakua, bestea 60, eta bestea 40-kua, urte batetik bostera bitarteko ardirik onenai.

9.<sup>garren</sup> Bat 60 pezetakua, bestea 50, bestea 30, eta bestea 20-kua, sei illabetetik emezortzira bitarteko, bi ollo ta ollar bat arraza bakoitzeko onenai, bertako kasta edo kanpokuen artian.

10.<sup>garren</sup> Bat 60 pezetakua, bestea 50, bestea 30, eta bestea 20-kua, sei illabetetik emezortzira bitarteko antzarik onenai, sari bakoitza irabazteko bi eme ta ar bat biar dirala.

11.<sup>garren</sup> Bat 50 pezetakua, bestea 30, bestea 20, eta bestea 10-kua, sei illabetetik emezortzira bitarteko aterik onenai, sari bakoitza irabazteko bi eme ta ar bat biar dirala.

12.<sup>garren</sup> Bat 50 pezetakua, bestea 30, eta bestea 20-kua urte batetik bostera bitarteko uso parerik onenai.

13.<sup>garren</sup> Bat 80 pezetakua, bestea 40, eta bestea 20-kua, erlaechea edo eultzik onenai.

14.<sup>garren</sup> Bat 80 pezetakua, bestea 70, eta bestea 60-kua, urte batetik bostera bitarteko astorik onenai.

15.<sup>garren</sup> Bat 70 pezetakua, bestea 60, eta bestea 50-kua, urte batetik bostera bitaiteko astaamerik onenai.

16.<sup>garren</sup> Bat 70 pezetakua, bestea 60, bestea 50, eta bestea 40-kua, sagardorik onenai.

17.<sup>garren</sup> Bat 50 pezetakua, eta bestea 30-kua, chakoliñik onenai.

18.<sup>garren</sup> Bat 50 pezetakua, bestea 40, bestea 30, eta bestea 20-kua, bertako gazta ongiyena egiñai.

19.<sup>garren</sup> Bat 40 pezetakua, bestea 30, eta bestea 20-kua, bertan egiñtako guririk onenai.

20.<sup>garren</sup> Bat 50 pezetakua, eta bestea 30-kua, unchia edo konejurik onenai, sari bakoitza irabazteko bi eme ta ar bat biar dirala.

21.<sup>garren</sup> Bat 70 pezetakua, bestea 50, eta bestea 30-kua, nekazari lanetako erremienta obeto egiñai, ala beren gayaz, nola pisuz eta irau-tez.

ADITZERAK.— 1.<sup>koa</sup> Ganaduen arraza alegiñ guztiyan obetzeko, zezenik onenak, au da, sarituak izaten diranak, bei-estaltzeko utzirik, zezenen sariyak emango dira: erdiya bereala, eta beste erdiya andik urtebetera, berriro zezen ori bera jabeak agerturik, bizi dan erriko Alkate jaunaren paper ziertotu batekiñ, non esango dan bei-estaltzeko iduki duela denbora orretan.

2.<sup>garrena</sup> Diputazio chi goituak erosten dituenean billalduyetan sarituak izaten diran zezenak, sariyaren balio osoa emango zaye beingoan beren jabeai, Juezak erabakitzen duten prezioakin batean.

3.<sup>garrena</sup> Euskal-itz-jostaldiak, zeinzen azaldea argitaratu zan, egingo dira illaren 30-ean, beste festa muga onez esango diranakiñ.